

# Mutilak, Zer nolako gizonak izango dira

**03.Uzt - 04.Uzt**  
**Kod. H8-17**



**Edizioa**  
2017

**Jaduerara mota**  
Ikastaroa

**Data**  
03.Uzt - 04.Uzt

**Kokalekua**  
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**  
Gaztelera

## ZUZENDARITZA

**Izaskun Landaida Larizgoitia**, Emakunde, Directora

## Azalpena

Duela 10 urte, Emakundek jardunaldi bat antolatu zuen, honako lelo honekin: “Egungo neskak, etorkizuneko emakumeak”. Bertan, generoak (itxaropenek, estereotipoek, rolek...) nesken nortasunean, emakume izateko prozesuan eta beren eskubideak berdintasun-baldintzetan erabiltzeko orduan duen eragina aztertu zen. Udako ikastaro honetan, aitzitik, mutilak izango dira mintzagai, eta, horren barruan, mutilak gizon bihurtzeko prozesua: zein mezu jasotzen dituzten (hezkuntzan, familian, komunikabideetan...) eta mezu horiek zelaz laguntzen (edo mugatzen) dituzten beren garapen integrala, bizikidetzeta-harremanen ikaskuntza eta boterearen erabilera; indarkeriaren erabilera eta horrek benetako berdintasunean duen eragina.

## Helburuak

Hezkuntzako mezuak, familiaren itxaropenak eta komunikabideen nahiz zinemaren eraginak identifikatu nahi dira, horiek guztiak eragina baitute mutilen nortasunean eta garapenean.

Mutilen eta gizonen garapen integralean eta emakume eta gizonen berdintasunerako posizio eta ekarpenetan laguntzen duten esperientziak, estrategiak eta programak ezagutu nahi dira.

## Kolaboratzaileak



## Programa

### 2017-07-03

09:00 - 09:15	Dokumentazio ematea
09:15 - 09:30	Inaugurazioa
09:30 - 10:30	“Harremani eta sexuari buruz ikasten”  <b>Carmen Meneses Falcón</b> , Comillaseko Unibertsitate Pontifizioa ICAI-ICADE - Comillaseko Unibertsitate Pontifizioko Antropologiako irakaslea
10:30 - 11:30	“Hezkidetza, eskolatik eta familiarik bidaltzen diren mezuen eragina”  <b>Marian Moreno Llanea</b> , Gijoneko Emilio Alarcos BHI - Gijoneko Emilio Alarcos BHIko irakaslea eta irakasleak hezkidetzan trebatzen aditua
11:30 - 12:00	Geldiunea
12:00 - 13:00	“Berdintasuna zineman”  <b>Octavio Salazar Benítez</b> , Kordobako Unibertsitatea - Konstituzio Zuzenbideko irakasle titularra Kordobako Unibertsitatean, katedraduna
13:00 - 14:00	“‘H programa: gazte eta hurrekin berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko egindako nazioarteko lan-esperientzia”  <b>Ritxar Bacete González</b> , Promundo Global - Senior Fellow. Promundoko koordinatzailea Espainian

### 2017-07-04

09:00 - 09:15	Harrera
09:15 - 10:30	“Ginen gizona eta garen mutila”  <b>Miguel Lorente Acosta</b> , Granadako Unibertsitatea - Granadako Unibertsitateko Legezko Medikuntza, Toxikologia eta Antropologia Fisikoko Saileko irakasle titularra.
10:30 - 11:00	Geldiunea



10:30 - 13:30 "Esperientziak EAEn"

**Haizea Miranda Martínez de Lopera** Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea  
- Programa eta Prestakuntza Arloko berdintasuneko teknikaria (moderatzailea)

**Fernando Oregi Altube** Genero-mainstreamingeko aditua:  
berdintasunerako aukerak. NAHIKO! programaren sorrera, koordinazioa eta  
laguntza teknikoa

**Alixé Rodríguez** Indarkeria matxistako eta hezkidetzako aditua. BELDUR  
BARIKeko idazkaritza teknikoaren koordinatzailea

**Patxi Pérez Giráldez** Gerontologiako aktore eta animatzailea.  
COMPRIMIDOSen egile eta aktorea. NO TE DUERMASen egile eta zuzendaria

**Juan Manuel Rodríguez Herrero** Zipritzten-eko aktore eta kidea. CLOWN  
DESAHALDUNTZEA MUTILENTZAT tailerraren sortzaile eta koordinatzailea

**Josetxu Riviere Aranda** Maskulinitasunetako eta berdintasuneko aditua.  
GIZONDUZ programaren laguntza teknikoa

---

## Zuzendariak



### **Izaskun Landaida Larizgoitia**

Emakunde, Directora  
(Vitoria-Gasteiz)

---

PRESTAKUNTZA Berdintasuneko agentearen masterra Valentziako Unibertsitatean. Gizarte-graduatuaren diploma Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako fakultatean. IBILBIDE PROFESIONALA Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria 2013ko urtarrilaz geroztik. Ugao-Miraballesko alkatea 2007tik 2013ra. EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendaritzako kidea eta bertako berdintasun-arloko arduradun politikoa 2007tik 2013ra. Aldi hartan jarri ziren martxan berdinbidean eta basqueskola proiektuak, besteak beste. Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokiko kidea 2007tik 2013ra. Landa-emakumeekin egindako proiektuen eta berdintasunarekin eta landa-inguruarekin lotutako hainbat erakundetako proiektuen prestaketa, garapen eta koordinaziorako lan teknikoak, Landa XXI Landa-inguruko Emakume eta Familien Elkartean. 2001etik 2007ra. Ugao-Miraballesko Udaleko gizarte-ekintzako zinegotzia eta alkateordea 1995etik 2007ra.



## Irakasleak



**Ritxar Bacete González**

(Gasteiz)

---



**Miguel Lorente Acosta**

(Granada)

---



**Carmen Meneses Falcón**

(Madrid)

---



**Haizea Miranda Martínez de Lopera**

Emakunde  
(Vitoria-Gasteiz)

---



**Marian Moreno Llaneza**

(Gijón)

---



**Fernando Oregi Altube**

(Donostia)

---



**Patxi Pérez Giráldez**

(Hendaia, Francia)

---





**Josetxu Riviere Aranda**

(Gasteiz)

---



**Alixe Rodriguez**

(Bilbao)

---



**Juan Manuel Rodríguez Herrero**

(Ermua)

---



**Octavio Salazar Benítez**



(Córdoba)

---

## Matrikula prezioak

<b>MATRIKULA</b>	<b>2017-05-31 ARTE</b>	<b>2017-07-03 ARTE</b>
OROKORRA	60,00 EUR	70,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	35,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR	20,00 EUR
MATRIKULA BEREZIA	35,00 EUR	-
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	35,00 EUR	46,00 EUR



## **Kokalekua**

### **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa